

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza

info

Asteartea, 2012ko urtarrilaren 31. IX. urtea. 2.351. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Zero Zabor taldea aurkeztu dute Villabonan, hondakinaren gaia jorratu asmoz

Hainbat herritar elkartu dira ekimenean, eta «kontzientziazioa eta inplikazioa» eskatu dituzte bere lehen agerraldian **3**

Fernandezen ontzia, aurreneko postuan doa

Ibarrakoak eta bere kideek abantaila txikia dute Volvo Ocean Race probaren hirugarren etapan **7**



→ **Herritarren parte hartze handia.** Aresoko Inauterietan herri guztia izan da festetako ekitaldiez gozaten. Eguraldia ez dute alde izan, baina horrek ez du giroa zapuztu, eta jende askok parte hartu du jaietan. Horren adibide dira argazkiko gazteak: eskean aritu ziren, baserri baserri, beraien alaitasuna herriko txokoetara eramanez. **5**

Pello Odriozolak etxean egon behar duela eskatu dute beste behin

Kalean egon behar zuela salatu dute, tolosarrak espetxean 24 urte bete dituen egunean **2**



Odriozolaren askatasuna eskatu dute bere lagunek, Egin Dezagun Bideak eta Lizardi kultur elkarteak. I.GARCIA



sarrerak



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** pare ditu

Otsailak 5 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Blancos de Rueda
saskibalo partida



harpidedunentzat **TXOKA hitza**



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**

Pello Odriozola askatzea eskatu dute, espetxean 24 urte bete dituen egunean

Odriozolaren lagunek, Egin Dezagun Bidea ekimenak eta Lizardi kultur elkarteak egin dute agerraldia

Imanol Garcia

Larunbatean 24 urte bete ziren Pello Odriozola atxilotu eta espetxean sartu zutenetik. Bere zigorra 2008ko uztailearen 2an bete zuela eta, hortaz, duela hiru urte eta erdi aske behar zuela esan zuten bere lagunek, Lizardi kultur elkarteak kideek eta Egin Dezagun Bidea ekimenekoek. «Tolosan behar genuen, Lizardin behar zuten gurekin», berretsi zuten kultur elkartearen egoitzan egindako agerraldian. Odriozolaren askatasuna eskatzeko eta «bidegabekeria handi honi» ezetz esateko, beste behin, Trianguloa plazan elkarretaratzea egingo dutela; etzi izango da, 19:30ean.

Egun, Zueran (Zaragoza, Espainia) dago Odriozola. Lizardi kultur elkarteak kidea dela gogora ekarri zuten agerraldian, eta gartzetatik «euskara eta euskal kulturari estu lotu» zitzaioela. «Euskal Herria aske izateko duen eskubidearen aldeko borrokarik» heldu ziola ere azaldu zuten, eta «gure herriak aske izateko ez biderik ezta eskubiderik ere» ez duela gaineratu zuten. Horren adibide, Espainiako Konstituzioak bere lehen artikuluetan dioena jarri zuten. Besteak beste, bigarren artikuluan, Espainiako Konstituzioa «espainiar nazioaren hautsezinean» oinarritzen dela dio, «espainiar guztien aberri komun eta zatiezina».

Espainiako presidente guztiek behin eta berriz «konstituzio horretatik kanpo ez dago ezer» esan dutela adierazi zuten agerraldian. Horren aurrean, Odriozolaren askatasuna eskatu zutenek,



Pello Odriozolaren askatasuna eskatzen duen pankarta, kultur etxean. i.e.

nazioarteko itunek diotena esan zuten, hau da: «Herri guztiek dute autodeterminatzeko eskubidea. Beronetz baliaturik, inolako murriztarik gabe hautatzen dute beren legetasun politikoa; eta askatasun osoan zedarritzen beren garapena, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren alorretan». Espainiako Konstituziotik nazioarteko legedira «alde ederra» dagoela esan zuten. «Europar demokrazia aldarrikatzen da, herri guztien eskubideak ontzat jotzen dira, Espainian, aldiz, herri txikiak kartzela eta morrontza aldarrikatzen da», gaineratu zuten.

Odriozola ez eskatzeko, legedia «bihurritu» dutela esan zuten Lizardiren egoitzan bildutakoek,

«zigor osoa beteta duen euskalduna espetxean mantentzeko, zigorra bidegabeki luzatzeko». Legea «mendeku zital» bihurtu dutela salatu zuten, eta Espainiako justizia gaur egun, «egoera politikoaren esanetara» dagoela gaineratu: «Inpartzialtasuna auzian dute epaileek. Joxi eta Joxean bahitu, torturatu, hil eta gorpua karez estali zituztenak kondanaren %5 beteta kalean daude. *No comment!* Agrario konparatibo honek ez du azalpen handirik behar».

Odriozolaren egoera zabalduz Ostiral arratsaldean egindako elkarretaratzea, hileko azken ostirala, bereziki Pello Odriozolaren akatasuna eskatzeko baliatu zen.

Horrez gain, beste ekitaldirik ere izan zen egun horretan. Leidorren hainbat taldek kontzertua eman zuten, gehienak Tolosa eta ingurukoak. Emanaldiaren une batean Martxelo Otamendi Lizardi kultur elkarteak kidea eta Pello Odriozolaren arreba bat, Mari Jose, eta honen alaba Ainhoa Sagedro igo ziren oholza gainera. Otamendik Pello Odriozolaren egoeraren berri eman zuten. Horrez gain, kontzertuaren une batean, Eñaut Elorrieta musikari eta abeslariak *Gernika* abestia eskaini zien euskal preso guztiei, eta bereziki Pello Odriozolari.

Logikoak ote dira zoologikoak?



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Etxeko txiekie animalia basatiak ikusteko aukera duten lekua, animaliak nola errespetatu ikasteko lekua, animalia arriskutsu eta pozoitsuekin zuzenean kontaktuan egoteko aukera; ongi etorriak zoologikoen logikarik gabeko mundura.

Bartzelonara egin nuen bidaia polit batean, Bartzelonako zoologikoko albatariarekin hitz egiteko zortea izan nuen, eta albatari honek esandakoarekin zenbait zoologikotara joateko gogoia kendu zitzaidan.

Ez da irudimen handia izan behar, animalia basati bat kaiola batean sartzen dugunean animalia hau ez dela eroso egongo pentsatzeko, nahiz eta egunero jaten eta edaten eman, lotarako leku polit bat eraiki eta berebiziko mimoak egiten dizkiogun. Animalia hau zoologikoan jaioa bada, agian gutxiago sufrituko du, ez baitu inoiz bere inguru basatia ezagutu eta hala nolako zoriontasun puntu batean biziko da urte gutxi batzuetan.

Animalia hauek intsektu edo arrainak direnean, adibidez, beraien ezerosotasuna ez da hain bestekoa izaten, ez baitute zerebro oso garatua, beraz, jana eta leku eroso bat badute, urte asko eta ongi biziko dira. Baina zer gertatzen da, adibidez, ugaztun harrapari bat (lehoi, hartza...) zoologiko batean sartzen dugunean? Bi hitzetan: zoratu egiten da.

Ugaztun harrapariak milioika urteetan ehizarako zerebro oso konplexu eta adimen handiko bat garatu dute, gezurra badirudi ere, animalia hauek ez dira egoten eroso erososotasunean, haragia jateaz gain haragi hau ehizatu egin behar dute, bere garuna eta gortputza horretarako diseinatuta baitago.

Oso ohikoa izaten omen da zoologikoetako harrapari handiek bere eremuan mugimendu arraroak egitea batera eta bestera, oso ohikoa omen da kumeak ez izatea, oldarkor bihurtzea eta mota guztietako buruko arazoak izatea, horrek guztiak heriotza goiztiar bat eraginez.

Gaur eguneko zenbait zoologiko modernoek, jada animalie ez diete zuzenean janaria ahora ematen; beraien eremuan zehar

janaria ipintzen dute animaliak berau bilatu eta nolabaiteko «dana» egin dezan janaria izateko. Ikusi da, hau egiten zaien animaliek ez dituztela jokaera arraro eta ez ohikoak egiten eta urte gehiago bizi direla.

Hau ikusita, geure zerebroaz pentsatzen hasi nintzen, biologoak horrelakoeak gara... apur bat arraroak.

Gizakiaren zerebroa ere ehiztari-biltzaile batena da; gure espeziea atzo ehizara joaten zen janari bila eta gaur supermerkatuetan erosten du janaria; gure espezieak atzo egun osoa basoetan gora eta behera ibiltzen zen fruta bila eta gaur sofán igarotzen ditugu asteburu osoak krispetak janez; atzo arte gure espezieak erritua praktikatzeko zituen suaren aurrean eta gaur egun telebistari begira gaude bizitzaren zati handi bat.

Nahi ala ez, geu ere gizarte moderno deritzon zoologiko baten barruan gaude, gure ehiztari-biltzaile zerebroarekin. Urtero arazo psikikoak ugartzen omen doaz: depresioa, antsietatea... psikiatrek gero eta lan gehiago dute! Urtero arazo baskularrekin jende mordo hiltzen omen da. Gizarte modernoetan zoriontasun testak egitean, jendea ez dela zoriontsu ikusten da.

Agian geuk ere, supermerkatuan janaria erosi ordez ehizatzen joan behar ote dugu? Agian behin betiko telebista itzali eta suaren aurrean dantzan hasi behar ote gara? Agian, urtean hila-bete bat gure zerebro ehiztari-biltzaileari eskaini behar ote diogu?

Eta zuen zerebro ehiztari-biltzaileak zerbait esan nahi badit, idatzi lasai bioaniztasunetik@hotmail.com helbidera.

Eskerrik asko idatzi dizkidazu mail guztiengatik, benetan jende oso interesgarriarekin topatzen ari naiz letra hauen beste aldean. Gora zuek!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Hainbat herritarrek Amasa-Villabonako Zero Zabor taldea Berdura plazan aurkeztu zuten, ostiralean. E. MAIZ

Zero Zabor taldeko kideek «kontzientziazioa eta inplikazioa» eskatu dituzte

Amasa-Villabonako Zero Zabor aurkeztu dute; herritarrek elkartu dira hondakinen arazo larriari aurre egiteko

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Zero Zabor taldea aurkeztu zuten ostiralean Villabonako Berdura plazan. Talde berria da, eta hondakinen arazo larriari aurre egin nahi dion lan talde bat direla argitu zuten. Arazoaren inguruan, «kontzientziazioa eta inplikazioa» beharrezkoak direla esan zuten.

Hondakinen arazoa zertan datzan jakitera eman nahi dute. Honen aurrean, konponbidea ema-

tea nahi dute, eta zero zabor programa bat aplikatzea: «Irtenbide alternatibo bat bilatu nahi dugu, eta billabonatar guztiak inplikatu nahi ditugu». Era berean, eta herri mailan, gai honen inguruan eztabaida sustatu nahi dute.

Gaur egun hondakinen inguruan bizi dugun egoera «kritikoa» dela gaineratu zuten. Eta «ez herri edo eskualde mailan, baizik eta mundu mailan». Hiru ildo azpimarratu zituzten: murriztea, berrerabilpena eta birziklapena.

Parte hartzeko deia

Murrizteari dagokionean, hondakin onena sortzen ez dena dela azpimarratu zuten. Berrerabilpena bultzatuz, hondakinak sortzeari utziz, produktuaren bitzitza luzatzea ahalbidetzen dela zioten.

Eta azkenik, birziklapena legoke, hau da, sortzen diren hondakinek jasotzen duten tratamendua izango litzateke, zabor bihur ez daitezten.

Ohiturak aldatzea zaila dela adierazi zuten, baina aurrera atera nahi duten proiektu hori herriari laguntzeko dela gogora ekarri zuten. Herritarrei gaiaren inguruan informazioa zabaltzeko asmoa azaldu zuten, eta herriari zein herritarrei aldagaketa aurrera parte hartzeko eskakizuna luzatu zieten.

Interesa duen pertsona oro gonbidatu nahi dute beraiekin harremanetan jartzera: «Ekimen honek jende gehiagorengana iristeko bultzada izan behar du». Arazoari errotik heldu behar zaioela azpimarratu zuten.

Ohiko osoko bilkura egingo dute Tolosako udaletxean, gaur 19:30ean

Hamabost puntuko gai ordena izango dute, eta horietatik sei hainbat gaien inguruko mozioak izango dira

E. Maiz Tolosa

Tolosako udal ordezkariak gaur 19:30ean ohiko osoko bilkura egingo dute. Hamabost puntuz osatutako gai ordena jorratu beharko dute, eta horietatik sei mozioak izango dira: Egin Dezagun Bideak aurkeztua; jaioberrien bidetarako jabetze edota adopzio irregularrei buruzkoa; sektore publikoaren erreformari buruzkoa; atez ateko zaborren batze sistema ezartzeari buruzkoa; Gipuzkoako azpiegitura lan handiak geldiaraztearen aldekoa eta Kutxabanken administrazio kontseilua dela-eta aurkeztutakoa.

Elkarretaratzea, 19:30ean

AHT Gelditu! elkarlanak azpiegitura handien aurkako mozioa dela eta, elkarretaratzea deitu du udaletxearen aurrean. 19:30ean hasiko da osoko bilkura, eta elkarlanekoek herritar guztiei parte hartzeko deialdia luzatu diete.

PSE-EEk ustezko haur lapurtuen familiekin kolaboratzeko deia egin du

E. Maiz Tolosa

Tolosako PSE-EEk bere babesa eta elkartasuna adierazi nahi izan die ustezko haur lapurtuen familiei. Horretarako, mozioa aurkeztu du udalean. Era berean, ospitale publikoei eta pribatuei eta Donostiako Gotzaindegia kasu hauekin kolaboratzeko eskatu die. SOS Haur Lapurtuak-eko kasu gehien dituen lurraldea Gipuzkoa dela diote, eta horietatik asko Tolosaldeakoak direla.

 tolosaldea.hitza.info

www.tolosaldea.hitza.info helbidean ikus daitezkeen azken bideoak:

- **Tolosa kantarikoak kaleak alaitzen.**
- **Aresoko inauterietan moztarotuen desfilea.**
- **Asteko HITZA iruditan.**

→ Laburrak

Atxulondo Kultur Etxea aste osoan itxita egongo da

ZIZURKIL » Zizurkilgo Udalak herritarrei eta bereziki Atxulondo kultur etxeko erabiltzaile guztiei, atzotik hasi eta otsailaren 3ra bitartean (biak barne) Atxulondo kultur etxea itxita egongo dela jakinarazi nahi die. Plazako obrak direla eta, sarre- birmoldatzeko lanetan hasiko dira, eta horrek eragin du itxiera.

Festak antolatzen hasteko lehen bilera gaur izango da

IKAZTEGIETA » Kultur ekitaldiak bukatuta, San Lorentzo festak antolatzeko lehen bilera egingo du, gaur, festa batzordeak. Asteartero bezala, 19:30ean elkartuko dira udaletxean, eta festa batzordeak herritar guztiei dei egiten diete ekarpenak eginaz bileran parte hartzera joateko.

Agate Deuna bezperarako entsegu, gaur 18:30ean

ANOETA » Herritar talde batek deituta, Agate Deuna bezperan kantuan aterako dira, Anoetan. Larunbatean 15:30ean plazan elkartuko dira, gero kantuan ibiltzeko. Lehenik baserriz base- rri ariko dira, eta 18:00etatik aurrera kalez kale. Guztia prestatzeko, gaur, 18:30ean entsegu egingo dute Mikelasagasti auditoriumean. Herritar guztiei dei egiten diete.

Hezkuntza proiektua eta ate irekiera, Hirukiden

TOLOSA » Matrikulazio garaia dela eta, gurasoei zuzendutako ekitaldiak egingo dituzte Hirukide ikastetxean. 2-3 urteetako geletan matrikulatu behar dutenei zuzendutako izango dira. Gaur, Hirukideko Hezkuntza Proiektuaren aurkezpena egingo dute 16:00etan (San Franzisko ibiltoxia, 12). Bihar, berriz, ate irekiak jardunaldian parte hartzeko aukera izango da 17:00etatik 19:00etara.

Iragarki laburrak

ALOKAGAI

- **Etxebizitza.** Tolosako Bera- zubi auzoan, 3 logelako etxebizitza alokatzen da. Interesatu- euek, deitu 628 163722 telefo- no zenbakira.
- **Etxebizitza.** Alegiako San Juan kalean, 3 logela, terraza eta bi trastelekurekin. Interesatu- euek deitu 626 86 76 36 telefo- no zenbakira.

Irudia » Amasa-Villabona / Zizurkil



KULTUR ASTEAN ERE GAUZAK IKASIZ

Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleek, egiten ari diren Kultur Astearren barruan, atzo, Kutxako Gaztetxo- en Klubak eskaintzen dituen kontzertu didaktiko- en parte hartzeko aukera izan zuten, Xabier Liza-

so piano jolearen eskutik. Pianoaren soinua entzuteaz gain, abestu eta jolastu ere egin zuten. «Primeran pasa dute eta aldi berean gauza pila ikasi: pianoaren sorrera, zenbait piano jole garrantzitsu,....», esan dute ikastolakoek. HITZA

Asteburua iruditzen

Berrobi



BABARRUN JATE OPAROA

Berrobitarrek babarrun jatea izan zuten larunbatean Begi Gorri gaztetxean. Lagun ugari gerturatu ziren hitzordura, eta ondoren mus txapelketa ere egin zuten. Eguna bukatzeko Donostiako Ekilibris-taldearen kontzertua izan zuten gaztetxean bertan. HITZA

Albiztur



GOMAIZTEGI KISKALI DA

Pasa den ostegunetik ostirala bitarteko gauean Albizturgo Gomaiztegi baserria erre zen. Sutean etxeko pertsona bat zauritu zen; eskuetan erredurak izan zituen. Antza denez, sutea 22:30ean hasi zen, eta baserria erabat kiskalita geratu da. E.MAZ


Tolosa



HAIZEZKOEN KONTZERTUA

Eduardo Mokoroa musika eskolako haizezko instrumentuen ikasleek emanaldia eskaini zuten larunbatean. Hurrengo kontzertua otsailaren 10ean izango da, Leidor aretoan. HITZA

Tolosa



JENDEA «OSO GUSTURA», KONTZERTUAN

Kontzertu berezia eta erantzuna ere berezia. Et incarnatus orkestrarekin batera, hainbat talde eta bakarlarik ostiral gauean Tolosan egindako emanaldirako Leidor bete egin zen. Bai musikariak eta bai entzuleak «oso gustura» egon zirela nabarmendu du Migel Zeberio, orkestrako zu-

zendariak: «Jendearen erantzuna izugarria izan da». Orkestraz gain parte hartu zuten: Eñaut Eloorrieta, Baigorriko Gaiteroak, Amaren Alabak, Lask Abesbatza, Jantxo Zeberio, Itsaso Etxebeste, Jon Arruebarrena eta Antton Telleria musikariak eta Juan Urretabizkaia dantzaria. YOLANDA GARCIA

Ibarra



TXANGO AEGIN DUTE IRIBARNERA

Ibarrako Bai Euskal Herriari ekimenak eta Haitzetan Raju mendi taldeak antolatuta, hainbat lagun elkartu ziren Zuberoako Iribarnen asteburu honetan. Elurra izan zuten, baina horrek ez zituen etxe-

an utzi, eta txango polita egiteko aukera izan zuten. Datorren irteeraren data ez dute zehaztu oraindik, baina otsailaren zehar izango da, eta oraingoan Bizkaira joango dira. HITZA

Tolosa



KALEAK ALAITUZ

Tolosa Kantariko kideak larunbatean atera ziren kalera. Oraingoan txaranga izan zuten bide lagun, eta besteak beste, iristear den Agate Deuna bezperako kanta abestu zuten. Tolosa Kantariren hurrengo hitzordua otsailaren 25ean izango da, hau da, hileko azken larunbatean. I. GARCIA

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA
Euskalduna, Denona eta Denontzat

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Matrikulazio epea:
urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

Fleming Ikastetxea.
Haur Hezikuntza Arretoa (2-6 urte)
Lehen Hezikuntza Arretoa (6-12 urte)
Tel.: 943 62 35 12 • Tel./Faxua: 943 62 14 13
012277an@hezkuntza.net

HAUR TXOKOA ZERBITZU BERRIA
7:30etatik 9:00tara
16:00atik 17:00tara

Erniobera B.H.I.
Villabona
Erniobera Ikastetxea.
Denonarentzat Guraso hezikuntza Arretoa (12-16 urte)
Tel./Faxua: 943 62 37 83
012952an@hezkuntza.net
www.erniobera.eu

hirukide
Tolosa
943 673 948
www.hirukide.org
hirukide@hirukide.org

Biziki hazi, bizitzen hezi

Mozorroen festa handia

Inauteriei buruzko balantze ona egin dute aresoarrek; banabar lehiaketa Mari Karmen Garmendiak irabazi du

Imanol Garcia Areso

Eguraldia nahiko traketsa izan arren, ia herri guztiak parte hartu zuten asteburuan Aresoko Inauterietan. Larunbatean eta igandean ekitaldi jendetsuak egin zituzten. Larunbatean, esaterako, herriko gazteak eskean aritu ziren baserri baserri. Kuardila ederra elkartu zen eta alaitasuna eraman zuten herriko txokoetara, ijitoz jantzitako familia handi bat irudikatuz. Ibilbidea oinez egin izan bazuten ere, gehientsuena autoz egin behar izan zu-

ten, euriak ez baitziren beste aukerarik eman.

Mozorrotuen desfilearako eguraldiak emandako aukera baliatu zuten. Gazteak gurdiaekin atera ziren, eta txikienek, gehienak kaldereroz jantzita, dantzaxoa eta guzti egin zuten.

Igandean banabar txapelketa eta bertso bazkaria antolatu zituzten. Lehiaketa Mari Karmen Garmendiak irabazi zuen eta bigarren Ana Mari Mariezkurrena izan zen. Guztira zazpi parte hartzaile aritu ziren. Ondorengo ekitaldian, ondo bazkaltzeaz gain, Beñat Gaztelumendiren eta Julio Sotoren saio «bikaina» entzun ahal izan zuten 60 bazkaldar inguruk, antolatzaileek esan dutenez.

Inauterien inguruko balantze ona egin dute aresoarrek. Herri txikia bada ere, giro handia jarri zuten herrikoek.



Goiko argazkian, Larrea elkartearen egindako bertso bazkariaren une bat. Azpikoan, mozorrotuen desfilea. HITZA



Txikienek, urtero bezala, mozorrotuen desfilean parte hartu zuten. I. GARCIA



Ijitoak gurdiaekin mugitu ziren kalez kale. I. GARCIA

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA


 telefonoa
943951063
webgunea
www.samaniego-tolosa.com
e-posta
012244aa@hezakuntza.net
 Haurreskola
(0-2 urte Plaza Berrian)
Haur eta Lehen Hezkuntza
(2-12 urte Samaniegon)

 07:30etik
aurrera
Haur Txokoa


 telefonoa
943659187
webgunea
www.orixe.net
e-posta
012980aa@hezakuntza.net
Mundu Zabalerako Zubia
 :: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
 :: ZIG - Lanbide Tailerra
 :: Batxilergoak

Euskaratik eta Euskaraz

Matrikula epea: urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

Garenak
x2
izateko

Lagun iezaguzu
harpidedun berriak egiten

ekar ezazu
hitzaren
harpidedun
berri bat

Gainera, gertukoak zoriontzeko
agur bat oparituko dizugu
HITZAn argitaratzeko.

HITZA, euskarazko
herri informazioaren leihoa

eta **opari**
bana
jasoko duzue

HITZAren
jertsea
harpidedunak



Mahala **saskia** harpidedun berriak

Harpidedun berria urtarrilaren 31 baino lehen ekartzen dutenentzat.

Kirolak**↓ Kirol emaitzak****PILOTA**
LEHEN MAILAKO BINA KAKO
TXAPELKETA

Bengoetxea VI-Apr aiz	22
Mrtnez de Irujo-Barriola	15

Hurrengo partidak

Mrtnez de Irujo-Barriola
Berasaluze VIII-Albisu

Bengoetxea VI-Apr aiz
Xala-Laskurain

BIGARREN MAILAKO
BINA KAKO TXAPELKETA

Jaunarena-Cecilio	22
Mendizabal III-Galarza	15

Olazabal-Larrinaga	22
Gorka-Arruti	7

Hurrengo partidak

Tainta-Argote
Olazabal-Larrinaga

Jaunarena-Cecilio
Rico VI-Untoria

FUTBOLA**ERREGIONAL OHOREZKOA**

19. jardunaldia
Elgoibar-Tolosa CF 1-2

Sailkapena

1. Anaitasuna	41p
2. Tolosa	38p
3. Berio	35p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF - Oiartzun

ERREGIONAL PREFERENTEA

18. jardunaldia

Lehen taldea

Tolosa B - Miren Bihotza 3-1

Sailkapena

1. Touring	41p
2. Ostadar	40p
3. Tolosa B	39p

Hurrengo jardunaldia

Touring-Tolosa B

Bigarren taldea

Zumaia-Intxurre 4-1

Sailkapena

1. Lagun Onak	36p
2. Antzuola	33p
3. Getariako KETA	33p
16. Intxurre	12p

Hurrengo jardunaldia

Intxurre-Soraluze

ARARETO FUTBOLA**BIGARREN B MAILA**

14. jardunaldia
Laskorain-Zalatambor 1-2

Sailkapena

1. Ebrosala	30p.
2. Kirol Sport	27p.
3. Zalatambor	24p.
12. Laskorain Ikastola	12p.

Hurrengo jardunaldia

Castro Urdiales-Laskorain

HIRUGARREN MAILA

17. jardunaldia

Egintza-Mallabia	4-1
Ibarra-Gora	5-3

Sailkapena

1. Ibarra	42p.
2. Sestao	39p.
3. Aurreira Vitoria	35p.

9. Egintza Transportes

Lakuntza 21p

Hurrengo jardunaldia

Inter Eder-Ibarra
Egintza-Sestao

EUSKAL LIGA**17. jardunaldia**

Hirukide-Uxo	2-4
Mamarigako-Eskolapioak	5-4
Lagun Onak-Tolargi	6-7

Sailkapena

1. Tolargi	37p.
2. Tolosala Hirukide	36p.
3. Goierri	36p.
7. Eskolapioak	21p.

Hurrengo jardunaldia

Tolargi-Hirukide
Eskolapioak-Sasikoa

SOKATIRA**Euskal Herriko Zortziko**
Goma Gaineko Txapelketa**600 kilotan (gizonezkoak)****Bigarren jardunaldia**

- Sokarri
- Abadiño A
- Ñapurak
- Amaiur
- Abadiño B
- Berriozar
- Ibarra**

Finala jokatu duten taldeak

- Abadiño A
- Amaiur
- Ñapurak
- Sokarri
- 5. Ibarra**
- Abadiño B

540 kilotan (emakumezkoak)

1. Badaiotz	4p
2. Sakana	3p
3. Ibarra	2p

Hurrengo jardunaldia

Otsailaren 4ean, Durangon, 640 kiloko finala jokatu dute gizonezkoek. Emakumezkoek, 500 kilotan, lehen kanporaketa jokatu dute leku eta egun berean.



Oinatz Bengoetxea. HITZA

Maddi Amianok junior mailako Gipuzkoako Judo Txapelketa irabazi du

Ioritz Seguroak eta Beñat Amianok brontzezko dominakin lortu dituzte, 55 eta 66 kiloko mailan

Erredakzioa

Maddi Amiano altzotarrak urrezko domina lortu berri du Gipuzkoako Judo Txapelketan. 44 kiloko mailan, junior kategorian, 18 urteko Amianok aurkari guztiak gainditu ditu, urrezko domina etxera eraman aurretik.

Tolosa taldea bost ordezkarirekin joan zen Gipuzkoako Judo Txapelketara, eta Maddi Amianoren urrezko dominaz gain, beste bi brontzezko domina lortu zituen; hirugarren postu hauek Beñat Amiano eta Ioritz Seguroaren eskutik etorri ziren.

55 kiloko mailan, Beñat Amiano finaleraino kanpo gelditu arren, hirugarren eta laugarren postu-



Maddi Amianok urrezko domina lortu du Gipuzkoako Txapelketan. E. MAIZ

rako lehian garaipena eskuratu zuen. Ioritz Seguroa kadeteari gauza bera gertatu zitzaion 66 kiloko mailan.

Iker Saralegik eta Iñigo Lopezek ez zuten kanporaketa gainditzerik izan. Ondorioz, dominaren borrokatik at gelditu ziren. Lope-

zek zorte txarra izan zuela aipatu behar da, izan ere, lehia ia irabazita zuen unean izan zen kanporatua. Norgehiagoka guztian nagusi izan ondoren, azken segundotan aurkariak bikain asmatu eta tolosarra txapelketatik kanpo utzi zuen.

Laskorain Ikastolak porrotarekin hasi du bigarren itzulia

Azken segundotan berdinketa eskuan eduki zuten horitxoek, Usabal kiroldegian jokatutako partidaren

giren aldrebeskeriak tarteko, eraso jokaldi luzeak egin zituzten horitxoek, arerioaren defentsan zirikituren bat bilatu nahian, baina kamuts ibili ziren.

Hogei minutuko lehiaren ostean, hasi bezalaxe aldageratu ziren bi taldeak. Continental Industriek babestutako saski ederra zozketatu bitartean, jokalariek atsedean hartu eta zaleek, partida osoan zehar traba eginez egon ziren saskibaloiko kanastetan, kantxara irtendako espantaneo batek emandako ikuskizunaz gozatu zuten. Atsedendaldiko zaleen algarak ordea laster amaitu ziren, Lizarrako taldeak estreinako gola egin baitzuen 22. segundorako. Estrategia jokaldi batean, baloia bikain mugitu eta Endikaren atea zulatzea lortu zuten, bigarren zutoinean bakar bakarrik geratu zen jokalar bati esker.

Gol honekin, Laskorainek ez zuten bere joko aldatu, baloia jabetza euren zen eta pazientziar gol aukeraren bat sortzeko asmoz lanean jarraitu zuten. Partida amaitzeko 5 minutu faltan, ordea, aurkako eraso bat mozteagatik epaileak Beñat kaleratu zuten, eta bi minutuz jokalar bati gutxiagorekin aritu behar izan

zuten Laskorainek. Kementsu aritu ziren horitxoak denbora horretan, baina bosgarren jokalaria berreskuratzeko 10 segundoren faltan, 0-2koa ipini zuen aurkariak markagailuan.

Azken minutuetan atezain jokalaria erabiliz bi jokaldi arriskuetsu egin zituen Laskorainek, bata bestearen antz atzekoak. Lehenengoan Diezek baloia sareetara bidaltzea lortu bazuen ere, 2 segundoren faltan zorteak aurkariari egin zion irribarre, eta baloia zutoina miakatzuz kanpora joan zen. Azken 1-2ko emaitzak goibel utzi zituen jokalar horitxoak, baina lanean gogor jarraitu beharra dago, datoen asteetan sailkapeneko aurkari zuzen zuzenen aurka jokatutako partidek erabakigarriak izan daitezkeen norabidea. Hasteko sailkapenean berdinduta dagoen Castro talde historikoari egin beharko diote bisita datorren asteetan.

Larunbatean Javi eta Jorge delegatuak, Javi eta Aitor entrenatzaileak eta Endika, Telleria, Lander, Gil, Etxebe, Murgi, Joniko, Loitzun, Diez, Zubillaga, Alonso eta Aratz jokalariek izan genituen elastikoa horitxo defentatzen.



Volvo Ocean Race lasterketaren lehen postuan aurkitzen da Xabi Fernandezen ontzia. HITZA

Xabi Fernandezen ontzia lehen postuan aurkitzen da, harrokeria handirik gabe

Volvo Ocean Race lasterketaren hirugarren etapa jokatzeko ari dira Asiako uretan; buruan hiru ontzi doaz

Asier Imaz Ibarra

Xabi Fernandez eta bere ontzia Indonesia inguruan aurkitzen dira une honetan, Volvo Ocean Race lasterketaren hirugarren etapan. Azken orduak erabakigarriak izaten ari dira, eta Telefonica ontziak lasterketaren buruan jarraitzen badu ere, Groupama eta Puma aurkariak oso urbil dituzte: hirugarren etapako 1.300 itsas milia egin ondoren, bi milia-ko alde besterik ez dago lehen sailkatuen artean. Honen ondorioz, orain arteko orduak garrantzitsuak izan baldin badira, ondo-

rengoak are erabakigarriagoak izango dira.

Hiru ontzien arteko lehiari Malacako itsasartean ezaugarriak gehitu behar zaizkio. Alde bate-tik, sareak eta oholak gaintitu behar dituzte kolperik eta kalterik jasan gabe, eta bestetik, Singapurrera gerturatzen doazen heinean, merkatal ontzien presentzia handitzen joango da, eta hauek ere kontuan hartu beharreko oztopoak izango dira. Lehiak, beraz, ez du amaiera arte etenik izango, eta hirugarren etapa amaiera arte oso parekatua izango dela dirudi.

Telefonica ontziko Iker Martinez kapitainaren esanetan, haize handirik ez dagoenez, gauzak are gehiago konplikatu daitezke. Hala eta guztiz ere, Xabi Fernandez lagunak euren eskuetan dagoen guztia egingo dutela azaldu du, beti ere lidergoa manten-

tzeko helburu sendoarekin. Malacako eremutik gaur irteetako zuten Telefonica ontzia, eta azken orduak oso konplexuak izango zirela aurreikusten zuten.

Helmuga Txinan

Volvo Ocean Race lasterketaren hirugarren etapa Chinako Sanya hirian amaituko da. Malacako itsasartetik bertara segurtasun eremu baten barruan joango dira, 15 itsas milia-ko zabaleran. Honek zailtasun gehiago ekarriko dituela azaldu dute Telefonica ontzitik, maniobra ugari egin beharko baitituzte: «Buruari dezente eragin behar izan diogu bide zuzenean zein zen erabakitzerako orduan, lehen aipatu bezala, faktore guztiak hartu behar izan ditugu kontuan. Lehia gogorra aurreikusten dugu, eta gelditzen diren itsas milia guztietan gogotik lan egin beharko dugu».



Olazabal aresoarrak Beotibarren jokatu zuen txapelketako parida, atzo. A.I.

Mikel Olazabalek garaipen erraza lortu du Beotibarren

Leitzarren arteko lehiari Oinatz Bengoetxea nagusitu zaio Abel Barriolari, binakako txapelketan

A. Imaz

Eskuz binakako txapelketaren partidak jokatu ziren atzo, Tolosaldeko Beotibar pilotalekuan. Mikel Olazabalek bigarren mailako-ko zegokien partida jokatu zuen, Larrinagarekin bikotea osatuz. Partida erosoan izan zen aresoarrentzat, izerdi handirik bota gabe lortu baitzuten garaipena Olazabalek eta Larrinagak. Gorka-Arruti bikotea ezinean aritu zen, triste. Partida zer izango zen lehen tantoan ikusi zen: epaileak txanpona airera bota eta urdin erori zen. Gorka, pilota eskuan zuela saka ateratzen joan zen, lau t'erdian bote egin eta motz.

Olazabalek eta Larrinagak hutsik ez egitera jokatu zuten, aukurako pilotetan arriskatuz. Gai-nontzekoa urdinek egin zuten, euren buruaren aurka, beti ere.

Garaipen honekin, Olazabal-Larrinaga hiru garaipenekin jarri dira binakako bigarren mailako txapelketan.

Lehen mailakoari dagokionez, Leitzako bi pilotariek elkarren aurka jokatu zuten larunbatean Iruñeko Labrit pilotalekuan. Bengoetxea VI-Apraizek 22-15 irabazi zieten Martinez Irujo-Barriolari. Boladaka joan zen partida, eta egindako tantoek garrantzia izan baldin bazuten ere, galdutakoek eman zuten zeresana. Bide horretan, Juan Martinez Irujo azpimarratu behar da, burua galduta ibili baitzen partidako hainbat tantotan. Gauzak horrela, Apraizen joko ikusgarriari Bengoetxea VI-aren erakustaldia gehitu behar zaio. 1-6 galtzen hasi ziren, ondoren 15-9 jartzeko. Barriola-Martinez de Irujo susperraldia izan zuten orduan, 16-15era gerturatu. Hortik aurrerakoak, azken emaitzak erakusten du: 22-15. Sei jardunaldi jokatu ondoren, Bengoetxea VI-Apraizek txapelketako hirugarren garaipena eskuratu zuten. Martinez de Irujo-Barriolak, aldez, bigarren porrota jaso zuten Iruñean.

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**ELENA
MENDIZABAL
ELIZEGI**

*Eskerrik asko auzolanean
gurekin izan zarela*

ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOA

ZERAIN, 2012ko urtarrilaren 31



**MARIA LULUAGA
ARRUABARRENA**

(Jesus Murua Mendizabalen alarguna)

Atzo hil zen, 80 urte zituela,
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
- Goian bego -

Bere arimaren zuzendaria: Joxi Eguzkitza; seme-alabak: Bixen eta Isa Martinez, Jose Ignacio (†), Joxe Mari eta Agurte Renobales, Txus eta Jose Perez; bilobak: Leire eta Iker, Jon eta Mariage, Uxue eta Jon Koldo, Adur, Olatz; anai-arrebak; ezkon anai-arrebak; ilobak; lehengusuak; eta gainerako ahaideak. Arren eskatzen dizute otoitz bat haren arimaren alde, eta etor zaitzetzela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN Alegiako SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

TOLOSAN, 2012ko urtarrilaren 31

Oharra: Gorputz bella Tolosaldeko FUNERARIA VASCONGADA tanatorioan egingo da, GAUR ASTEARTEA goizeko 09:30ak arte.



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	6°
HOTZENA	-3°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Alkoholiko Anonimo-en Uzturre taldeak bilera irekia egingo du gaur, 20:00etan, Corpus Christi parrokiko lokaletan.
- **Tolosa.** Samaniego ikastetxean ate irekien jardunaldiak burutuko dituzte gaur eta ostegunean, otsaila 2. 16:45ean izango dira Haur Hezkuntzako eraikinean. Informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 6510 63 edo 688 60 33 51 telefono zenbakietara, 09:00etatik 12:30era, edo 14:30etik 18:00etara.
- **Ibarra.** Uzturpe ikastolaren kultur astearen barruan gaur, 14:30ean, jokoen eta jolasen tailerra Azkue kaleko lokalean; eta 17:00etan, *Arreta gabezia eta hiperaktibitatea* hitzaldia kultur etxean.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Kirikiño aisialdi taldearen 25. urteurrena dela eta erakusketa jarri dute kultur etxean otsailaren 5a bitarte. 17:30etik 20:30era bisitatu daiteke, eta bertan Inauterietako argazkiak, eta aisialdi taldearen historia ezagutzeko panelak ikusi daitezke. DVD interaktibo bat ere ikusi ahal da.
- **Ibarra.** 2011ko jaien argazkiak biltzen dituen erakusketa ikusi daiteke kultur etxean martxoaren 2a arte. 10:30etik 13:00etara, eta 15:30etik 21:00era ikusi ahal dira irudiak.

Irudia Tolosa



BAKEAREN ALDEKO EKITALDIA EGIN DUTE

Hirukide ikastetxeko ikasle, guraso eta irakasleak Trianguloa plazan elkartu ziren atzo goizean, bakearen alde. Urtero egiten dute ekitaldia Gandhiren heriotzaren harira, eta lehenik eta behin, ma-

nifestu bat irakurri zuten. Ondoren, kanta bat entzun ahal izan zen, eta bukatzeko suziria boto zuten. Mahatma Gandhi 1948. urteko urtarrilaren 30ean hil zen. I.GARCIA

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenetan eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera duzue:

Liburudendetan:

Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €

Anoetan: Kuku-lore liburudendan.

Ibarra: Lurdes liburudendan.

Tolosa: Aramburu liburudendan, Elkar liburudendan eta Babel liburudendan.

Villabonan: Kazetaria liburudendan.

HITZAko bulegoan:

Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

Eskaintza berezia

HITZAren egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburua ere eskuratu ahal izango duzue:

prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €.

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak, bi liburuak, 25 €, harpidedunek 20 €.

